

1. IDEIA ETA BALIO PROPOSAMENA:

Pelukeroak etxeetara bidaltzen dituen enpresa. Ideia hau bi arrazoigaitik sortu zen, batetik pandemia dela eta, jende nagusiak ez duelako leku itxietan egon nahi eta beste alde batetik, argi geratu da beharrezkoa dutela zerbitzu hau bere egunerokotasunean. Izan ere, ileapaindegiak zabaldu ziren momentuan izugarrizko itxarote ilarak egon ziren. Gainera ez dugu ahaztu behar adin batetik aurrerako pertsonak, beraien kabuz ilea atontzeko zailtasunak izaten dituztela eta ileapaindegien zerbitzua astero erabiltzen dutela. Gainera, uste dugu gurea bezalako enpresa batekin jendeak ez duela hainbeste denbora galduko ileapaindegian. Etxez etxeko zerbitzu bat izanik denbora aurrezten du bezeroak eta gainera erosotasuna irabazten du.

“Luuk” izena ingeleseko “look” sustantibotik dator, honek estiloa edo itxura esan nahi du. Izen horri esker errazagoa egingo zaigu jendearen arreta lortzea, espeziala delako, eta erraz gogoratuko duten izen bat da.



Gure enpresak eskaintzen duen balioa kualitatiboa izango da; kontsumitzaileak ez dira pelukeria batera joan beharko eta bertan kolak itxaron, dena izango da arinagoa eta erosoagoa, beraz, argi geratzen da lana errazten diegula eta esperientzia bat eskaintzen diegula.

Gure enpresak eskaintzen duen balioaren barruan hurrengo elementuak ditugu:

Berrikuntza edo nobedadea ematen diegu gure bezeroei, momentu honetan Durangaldean ez dagoelako gurea bezalako enpresarik. Gainera, kontuan hartzen ditugu Covid-ari bildurra dioten zaharrak, gure erbitzua jasotzerakoan, bezeroa langile bakar batekin dagoelako eta ez delako lokal batera sartu behar. Horrekin, arriskuak ere murrizten ditugu, beraien osasuna bermatuz. Guk enpresa moduan gaur egun exigitzen diren osasun neurri guztiak betetzen ditugulako beraien etxeetara goazen momentuan. Guzti honek, guganako konfiantza handitzen dute.

Pertsonalizazioa ere eskaintzen dugu, bezero bakoitzak berak nahi duen estilora moztuko baitzaio ilea, ezarritako baldintzak errespetatuz (adibidez ez da tinterik erabiliko). Kontutan hartzekoa da, gure zerbitzuak pertsonalizatuta dago, hau da, ez dagoelako beste enpresarik gure berdina eskaintzen duela. Guk garatutako ideia hau, jendea laguntzeko eta erraztasunak eskaintzeko egin dugu.

Prezioak aldiz, industriakoren bera izatea da helburua. Gure zerbitzua ez dago bideratuta merkea izatera, kalitate ona izatera baizik. Hori dela eta, gure kostuak ez dira baxuak izango, ez dugu balio kuantitatiborik..